

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1655

EBAZPENA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte-mugimenduei laguntzak emateko deialdia 2015. urterako.

Gizarte demokratiko guztiek dute giza eskubideen eta bakearen ezagutza eta errespetu sakona herritarren artean sustatzeko betebeharra.

Giza eskubideak eta bakea ezinbesteko erreferentea dira justiziaren, askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren oinarrien gainean eraiki nahi den edozein gizarte- eta politika-antolamendutarako. Pertsona guzti-guztien giza duintasunaren balio gorena da abiapuntua, norbanakoak gizartean dituen eskubide eta betebeharrak iruteko abiapuntua, hain zuzen ere. Horri dagokionez, ezin da zalantzan jarri, azken batean, pertsonaren gailentasuna, eta gizarte- eta erakunde-arkitektura pertsonaren garapenera eta sustapenera bideratu behar dela.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948) garrantzi handiko erreferentzia historikoa izan zen; izan ere, lehen aldia izan zen instantzia unibertsal batek denei errespetatu behar zaizkien eskubideak aldarrikatu zituen, hartarako arrazoi bakarra gizaki izatea izanik.

Eusko Jaurlaritzaren jardueraren helburuetariko bat da, hain zuzen, euskal gizartean Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko hezkuntza bultzatzea, dauden baldintzak optimizatuz, sektore estrategikoen arteko beharrezko sinergiak sortuz, eta jardun-programa koordinatua garatuz.

Hori dela eta, aurreko ekitaldietan bezalaxe, Eusko Jaurlaritzak laguntza ekonomikoen deialdi bat sustatzen du, bakea, elkarbizitza eta giza eskubideak sustatzeko, zabaltzeko eta gaitzeko proiektuak diruz lagundu asmoz.

2013ko irailaren 24ko 415/2013 Dekretuak (2013ko irailaren 30eko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoan memoria historikoaren berreskurapena, bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak jorratzen dituzten antolakunde eta gizarte-mugimenduek helburu horrekin sustatzen dituzten proiektuetarako diru-laguntzak arautzen ditu, eta, 2.1 artikuluan, ezartzen du diru-laguntza horietarako deialdia urtero egingo dela, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpenaren bidez. Horrenbestez, 2015eko laguntzetarako deialdia egiten da.

Orobat, 187/2013 Dekretuaren 20.3 artikuluari jarraikiz, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak egin behar du bere eskumen-arloko diru-laguntzen deialdia (Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du aipatutako dekretuak).

Hori guztia kontuan izanda, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek eta gizarte-mugimenduek bakea, elkarbizitza eta giza eskubideak sustatzeko, zabaltzeko eta gaitzeko proiektuak diruz laguntzeko bideratutako laguntzen 2015erako deialdia iragartzea, norgehiagoka-araubidearen arabera.

2. artikulua.– Denbora-eremua.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, proiektuak 2015eko ekitaldian garatu beharko dira eta, betiere, abenduaren 31n amaituta egon beharko dute.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Diruz lagundu ahal izango dira bakea, elkarbizitza eta giza eskubideak sustatzeko, zabaltzeko eta gaitzeko proiektuak, 1. artikuluan adierazi gisan; honako hauek, besteak beste: kongresuak, sinposioak, jardunaldiak, mintegiak eta aldi baterako erakusketak antolatzea, ikus-entzunezko produktuak, argitalpenak, hezkuntza-proiektuak, ikerketak eta dibulgazio-kanpainak.

4. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– Diru-laguntzen programa honetara seiehun mila (600.000) euro bideratu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan 2015. urterako aurreikusitako partidaren kargura.

2.– Gehienez ere, hirurogei mila (60.000) euroko diru-laguntza eman ahal izango da proiektu bakoitzeko.

3.– Laguntzek honako lege hau bete beharko dute: Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamendua, Europar Batasunaren minimis laguntzen funtzionamendu itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa (EBAO, L 352, 2013-12-24). Laguntza hauek minimis motako laguntzat jotzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako laguntzaren guztizkoak ez du gaindituko 200.000 euroko kopurua, aurreko bi ekitaldi fiskaletakoa eta aurtengoa batuta. Muga horretatik beherako diru-laguntzek merkataritzari eragiten ez diotela eta lehiakortasuna faltsutzen ez dutela ulertzen da; horren ondorioz, ez dira sartzen Europako Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107.1 artikulua erabiltzeko eremuan.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Honako pertsona juridiko hauek eska ditzakete agindu honetako laguntzak: legez eraturako pertsona juridiko pribatu eta irabazi-asmorik gabekoak, baldin eta beren estatutuetan jasotakoaren arabera, haien helburua bakea eta giza eskubideak erdiestea bada.

6. artikulua.– Bateragarritasuna.

Deialdi honetan azaltzen diren diru-laguntzak beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede berberarekin ematen dituen beste batzuekin batera daitezke, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago.

7. artikulua.– Izapidetze elektronikoa eta aurrez aurrekoa.

1.– Prozedura honen izapide guztiak kontsultatzeko, eskatzeko eta egiteko, erakunde interesdunek bide elektronikoak erabil ditzakete.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak aurrez aurre nahiz elektronikoki nola izapidetu jakiteko xehetasunak euskadi.eus-eko egoitza elektronikoa honetan eskura daitezke: https://euskadi.eus/ayuda_subvencion/eu/2015/organizaciones-paz-convivencia-derechos-humanos/

3.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurreko bidea edo bide elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, eta edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea.

4.– Eskabidea egin ondorengo izapideak, bide elektronikoa aukeratuz gero, helbide honetan egingo dira: <http://www.euskadi.eus/misgestiones>.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Eskabidea Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saileko Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariari bidali behar zaio (Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz).

3.– Eskabideak aurrez aurre aurkeztu nahi izanez gero, leku hauetara eraman daitezke: Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzara (Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz), Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetara (Zuzenean), lurralde-ordezkaritzetara edo bestelako erakunde laguntzaileetara. Bestela, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako bideak ere erabili daitezke (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

4.– Orobat, bide elektronikoen bitartez ere aurkeztu daitezke eskabideak, euskadi.eus-eko egoitza elektronikoa sartuta.

9. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidea (I. eranskina) inprimaki arautuan egin beharko da, zeina euskadi.eus egoitza elektronikoa ere eskuragarri baitago.

2.– Eskabide horrekin batera, proiektuaren memoria ere aurkeztuko da (II. eranskina), honako agiri hauekin:

a) Eskabidea egin duen erakundeari buruzko datuak.

b) Proiektua gauzatzeak eragingo duen kostuaren aurrekontua, partiden arabera banakatuta. Bertan, proiektua finantzatzeko gainerako bideak, baleude, zehaztuko dira eta, bestela, proiektua finantzatzeko berezko nahiz kanpoko beste baliabiderik ez dagoela dioen zinpeko aitortpena egin beharko da.

c) Proiektuaren memoria xehea, non zehaztuko diren xedea, metodologia, balizko hartzaileak (sexuaren arabera bereiziak), lurralde-eremua, egingo diren jardueren egutegia eta genero-ikuspegiari nola helduko zaion. Memorian egiaztatuko da eskatzaileak proiektuari dagokion arloan duen esperientzia.

d) Erakunde eskatzaileak proiektua gauzatzeko dituen baliabide materialen eta giza baliabideen adierazpena. Horretaz gain, honakoak ere adierazi beharko dira: alde batetik, erakundeak ba ote duen berdintasunaren alorrean trebatuta dagoen eta ibilbidea duen pertsonarik, eta, bestetik, boluntario gisa jarduten duten pertsonen kopurua. Inolako ordainsaririk gabe proiektuan parte hartzen dutenak joko dira boluntariorzat.

e) Diru-laguntzaren eskatzaileak ekitaldi fiskal horretan edo aurreko bi ekitaldi fisikaletan beste minimis laguntzarik jaso ote duen adierazi beharko du, minimis laguntza honekin Erregelamenduan ezarritako gehieneko muga gainditzen ez dela egiaztatzeko.

10. artikulua.– Epaimahai kalifikatzailea.

Hauek izango dira epaimahai kalifikatzaileko kideak, 2013ko irailaren 24ko 415/2013 Dekretuaren 10. artikuluan xedatu bezala:

Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, epaimahaiburua.

M.^a Begoña Garamendi Ibarra andrea, Hezkuntza Berriztatze zuzendaria, bokala.

Jon Redondo Lertxundi jauna, Gazteria eta Kiroletako zuzendaria, bokala.

Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, bokala.

Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria, bokala.

Ana Alberdi Zubia andrea, Emakundeko idazkari nagusia, bokala.

Laura Sagastizabal Errazu andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria, idazkaria.

11. artikulua.– Balorazio- eta hautaketa-irizpideak.

1.– Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko, lehiaketaren prozedura erabiliko da, eta honako balorazio- eta hautaketa-irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa. 20 puntu, gehienez.

b) Erakundearen kudeaketa-gaitasuna, proiektuari dagokionez. 10 puntu, gehienez.

c) Proiektuaren aurrekontua argia eta egokia izatea. 10 puntu, gehienez.

d) Proiektuaren potentzial estrategikoa eta haren egokitasuna edo gizarte-interesa. 20 puntu, gehienez.

e) Erakunde eskatzailearen ibilbidea. 10 puntu, gehienez.

f) Genero-ikuspegiaren trataera, garatu beharreko proiektuetan. 10 puntu, gehienez.

g) Proiektua hainbat erakunderen artean gauzatzea edo beste administrazio publikoren bat ere proiektuan sartuta egotea. 10 puntu, gehienez.

h) Proiektua deialdiaren xedera zein mailatan egokitzen den. 10 puntu, gehienez.

2.– Guztira, gehienez 100 puntu emango dira.

3.– Diru-laguntza esleitzeko, eskaerak gutxienez 45 puntu lortu beharko ditu, aurreko baremoen arabera.

12. artikulua.– Ordaintzeko modua.

1.– Deialdi honen babesean ematen den diru-laguntza honela ordainduko da:

Lehenengo ordainketan, emandako diru-laguntzaren % 75 ordainduko da, diru-laguntza berariaz onartu eta gero, edo ematen dela jakinarazten denetik hamar eguneko epea igarotzean, berariazko uko-egiterik ez bada aurkezten.

Bigarren ordainketa 2016an egingo da. Bertan, emandako diru-laguntzaren erabilera (hurrengo artikuluan zehazten den bezala) Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari justifikatu eta gero egindako likidazioaren ondoriozko zenbatekoa ordainduko da.

2.– Emandako diru-laguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunek hirugarrenen alta hartzeko agiria aurkeztu beharko dute, baldin eta erregistraturik ez badaude edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenen Erregistroko banku-datuak aldatu nahi badituzte.

13. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

1.– Justifikazioa (III. eranskina) aurkezteko epea 2016ko martxoaren 31n amaituko da, eta hauek barne hartu beharko ditu:

a) Diruz lagundutako proiektua garatzeko egindako gastuak justifikatzen dituzten jatorrizko faktura eta ordainagiriak, originalak edo kopia konpultsatuak.

Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztu behar dira, behar bezala ordenatuta eta zenbakituta, eta zerrenda batean adierazita dokumentu bakoitzean adierazitako gastua zertarako egin den. Fakturak bat etorri beharko dute Fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen araudia onartzen duen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duen azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuaren 6. artikulua ezartzen dituen eskakizun formalekin.

b) Eredu ofizialaren arabeko soldata-ordainagirien originalak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agiri ofizialak, kontratatutako lan-kontratuko langileei dagozkien gastuak justifikatzeko.

c) Aldi baterako kolaborazio-gastuen ordainagiri originalak edo horien kopia konpultsatuak. Besteak beste, datu hauek adierazi behar dituzte: jasotzailearen datuak, Nortasun Agiri Nazionala, ordainketaren kontzeptua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokion atxikipena. Era berean, lankidetzaren horiekin lortutako diru-sarreraren kitapena egiteko Ogasuneko jatorrizko inprimakia aurkeztu beharko da (110 – 190 inprimakia).

d) Programen, iragarki-kartelen, argazkien eta argitaratutako gainerako material grafiko, idatzi edo soinuzkoen aleak.

e) Gauzatutako proiektua justifikatzen duen memoria, non jasotzen baitira onuradunak –sexuaren arabera bereizita– eta genero-ikuspegia txertatzeko modua.

2.– Izapidetzea elektronikoki egiten bada, eskaneaturik eta elektronikoki sinatuta aurkeztuko da aipatu dokumentazioa.

3.– Izapidetzea aurrez aurre zein elektronikoki egin, Administrazioak, egoki baderitzo, agiri originalak eska ditzake.

4.– Justifikazioak aurrez aurre nahiz elektronikoki nola izapidetu jakiteko xehetasunak euskadi.eus-eko egoitza elektronikokoan daude eskura.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke Bake eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusian, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbaitzen hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Prozeduraren arloaz ebazpen honetan berariaz arautu gabekoari dagokionez, aplikagarria izango da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoa (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 1a.

Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria,
MÓNICA HERNANDO PORRES.

2015eko apirilaren 13a, astelehena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Eskabidea - I. Eranskina

BAKE, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN ARLOAN PROIEKTUAK GARATZEN DITUZTEN ERAKUNDE ETA GIZARTE-MUGIMENDUEI LAGUNTZAK

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak

Titularra

Erakundearen izena *

Telefonoa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Identifikazio-dokumentua * _____ Zenbakia *

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

 -

--

Zein lurralde/probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak *

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua GizonaIdentifikazio-dokumentua * _____ Zenbakia *

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

 -

--

 Emakumea

Helbide elektronikoa: _____

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

Posta bidezkoa

Helbidea *: _____ Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

 Udalerria * _____ Probintzia * _____

Herrialdea * ESPAINIA

Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak**Bateragarritasun-adierazpenak**

Erakunde eskatzailea(k):

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio eta eman egin dio (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio, baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Inskripzio-adierazpena

Erakunde eskatzailea legez eraturik dago, eta dagokion erregistroan inskribatuta. Inskripzioaren datuak:

- Euskadiko _____ erregistroa.
- Data _____

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Erakunde eskatzailea(k):
 - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigorraren edo administratiborik.
 - Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatik¹ lege-debekuen eraginpean.
 - Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu bezala².
 - Betetzen ditu indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

² 1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatuta ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultazeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

+ Dokumentu berria gehitu

_____ (Tokia) (e)n _____ (Data) (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Erakundeak beti ordezkari baten bidez aritzen dira, hortaz:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete ezazu *Titularra* atala erakundearen datuekin eta *Ordezkaria* atala zure datuekin.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

2015eko apirilaren 13a, astelehena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

II. ERANSKINA

PROIEKTUAREN MEMORIA

Izartxo (*) daramen datuak derrigorrezkoak dira

Erakundea inskribatuta dagoen erregistroko / erroldako datuak

Erregistroaren / Erroldaren izena: * _____

Erregistro-data: * _____ Erregistro-zenbakia: * _____

Estatutuen arabera, hauxe da erakundearen helburua (hitzez hitz kopiatu): *

Zuzendaritza-batzordearen osaera

Eskabidea egindako egunean erregistroan edo erroldan erregistratua dagoenaren arabera, honako hauek dira erakundean indarrean dagoen Taldeko Aginte Organoko/Zuzendaritza Batzordeko kideak (hitzez hitz kopiatu izenak eta karguak. Erakundearen estatutuek taldeko aginte-organorik aurreikusten ez badute, lehendakariaren, idazkariaren eta diruzainaren izen eta karguak adierazi):

Izena	Kargua
	Lehendakaria

+ Lerro Berria Gehitu

Programaren datuak

Proiektuaren izena: * _____

Eskatutako zenbatekoa: _____

Gastuak		Sarrerak	
Langile-gastuak		Erakunde eskatzailearen ekarpena	
Funtzionamendu-gastuak		Erakunde publikoen ekarpena	
Bestelako gastuak		Erakunde pribatuen ekarpena	
		Bestelako sarrerak	
Gastuak, guztira		Sarrerak, guztira	

+ Lerro Berria Gehitu

Defizita: _____ euro

Bestelako finantzaketa-iturriak

Baduzu bestelako finantzaketa-biderik?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein?	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa
Guztira		

+ Lerro Berria Gehitu

Eskatutako diru-laguntzak eta ebazpenaren zain

Bestelako laguntzarik eskatu al duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
Zein erakunderi?	Eskatutako zenbatekoa
Guztira	

+ Lerro Berria Gehitu

+ Proiektua Gehitu

Programaren datuak

Programaren/Proiektuaren izena: *

Programaren hartzaile izan daitezkeenak: *

Programaren gutxi gora-beherako hartzaile-kopurua (sexuen arabera banatuta): * Gizonak: _____ Emakumeak: _____

Lurralde-esparrua: * _____

Programaren helburua: *

Metodologia: *

Egin beharreko jardueren egutegia

Jarduera	Data	Modua

+ Lerro Berria Gehitu

Giza baliabideak

Parte-hartzailea

Prestakuntza:

Esperientzia:

Parte-hartzearen maila:

Berdintasun-arloko prestakuntza:

Boluntarioa/Elkartea: _____

Bere erakundearen izena (zutabea erakunde eskatzaileakoa ez den elkarteren batekoa izatekotan bete behar da):

+ Parte-hartzailea Gehitu

Baliabide materialak

Erakunde eskatzaileak proiektua gauzatzeko dauzkan baliabide materialak: *

+ Proiektua Gehitu

2015eko apirilaren 13a, astelehena

"MINIMIS" diru-laguntzei buruzko adierazpena

2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Europako Batzordearen Erregelamendua, Europako Batasunaren Funtzionamendurako Tratatuak 107 eta 108 artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, L 352 zenb. 2013.12.14)

Erakunde onuradun honek, aurreko bi ekitaldi fiskaletakoa eta aurtengo batuta, ondorengo minimis-laguntzak jaso ditu erakunde publikoetatatik edo aurrekontu publikoen kontura finantzatutako ente pribatuetatik:

Erakundea	Deialdia	Aprobazio data	Aprobaturako kopurua	Jasotako kopurua	Ordaintze data

+ Lerro berria gehitu

Onuradunak konpromisoa hartzen du informazioa emango duela ekitaldi fiskal honetan aurkeztutako beste diru laguntza eskaerei buruz, baita ematen dizkieten diru laguntzei buruz ere.

_____ (e)n, _____ (e)an

Sinadura:

2015eko apirilaren 13a, astelehena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

III. ERANSKINA - JUSTIFIKAZIOA

Programaren datuak

Programaren izena: _____

Programa honen onurak jasotzen dituen kolektiboa: _____

Programa honen onurak jasotzen dituen emakume-kopuru balioetsia: _____

Programa honen onurak jasotzen dituen gizon-kopuru balioetsia: _____

Egindako jardueren laburpena:

Proiektuaren betearazpenean parte hartu duten pertsonak

Parte-hartzailea

Prestakuntza:

Esperientzia:

Parte-hartzearen maila:

Berdintasun-arloko prestakuntza:

Boluntarioa/Elkartea: _____

Bere erakundearen izena (zutabea erakunde eskatzaileakoa ez den elkarteren batekoa izatekotan bete behar da):

+ Parte-hartzailea Gehitu

Betearazpenean erabilitako baliabide materialak:

Genero-ikuspegia sartzeko modua:

2015eko apirilaren 13a, astelehena

Fakturak, nominak, proiektuari egotzitako aldi bateko lankidetzak

Egozpen-mota	Zenbatekoa
Guztira	

+ Lerro Berria Gehitu

Dokumentu-mota	Data	Zenbatekoa	Zenbakia	Zertarakoa

+ Lerro Berria Gehitu**Proiektuaren betearazpenean egindako materiala**

Programak Kartel iragarleak Argazkiak Bestelakoak _____

Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztu behar dira, behar bezala ordenatuta eta zenbakituta, eta **zerrenda batean adierazita dokumentu bakoitzean adierazitako gastua zertarako egin den**. Faturek bat etorri beharko dute Fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen araudia onartzen duen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duen azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuko 6. artikulua ezartzen dituen eskakizun formalekin.

+ Proiektua Gehitu

_____ (e)n, _____ (e)an

Sinadura: